

AITZINA

Editorea: Fermín Munarriz. Koordinatzailea: Marianus Monzón. Aholkularia: Iñaki Egaha. Diseñatzailea: Juan Luis Napal.  
Helbidea: Rincón de la Aduana, 18. behe, 31001 Iruña. Tifoa. 948-21 99 99. Faxa: 948-21 23 29. E-mail: aitzina@nafarkobi.net

## NORANTZA

**Luis Mari Zaldúa**  
URNIETATEL-eko ZUZENDARIA

# «Zeresan handia dute herriek teknologia berrien merkatuan»

Herritarrei ahalik eta zerbitzurik onenak eskaintzea, teknologia berrietan murgiltzea eta abantaila sozialak lortzea helburu izanik, 1990-1991 inguruan Urnietan martxan jarri zuten proiektua dugu honako hau.

gabeko telefono bat eskaintzen diegu herritarrei. Dena den, nire ustez, abantailarik handiena herritarren konfiantza da. Udala herriarretatik hurbildu daogen instituzioa da eta horrek eurekiko bestelako konfiantza eta tratua suposatzen du, tratua personalizatuagoa, alegia.

kenik, gure helburua herrian abantaila sozialak garatzea da. Gure herriarentzat eta oro har Euskal Herriaren aurrerapenerako egindako lan gisa ulertzen dugu egiten duguna.

**Zein izan da zerbitzu hauekiko herritarrek izan duten harre-  
ra?**

Herritarren harrera oso ona izan da. Udalaren ideia izan bada ere, isortio honetan protagonista nagusiak herritarrek izan direla zirentzat. Herritarren konfiantzarik gabe ez ginatekeen iritsi garen tokira iritsiko. Herritarrek beraientzat zerbitzu hauek dituzten abantailak handiak direla jakitu dira eta, gainera, herriaren alde edota herriaren aurrerapenerako inbertitzeko modu bat dela ohartu dira. Finean, eurek gastatzen edo kontsumitzen dutena herrian gelditzen da. Harrera onaren isla datuak dira: egun, herriaren %90ek erabiltzen ditu gure zerbitzuak, eta hori oso positiboa da.

**Euskal Herriko beste herrietara esperientzia hau zabaltzea interesgarria izango litzatekeela uste al duzu?**

Telekomunikazioen merkatuan udalak eta herriek zeresan handia dutela pentsatzen dut. Udalak herriaren lehen ordezkariak dira eta, horrenbestez, merkatu horretan herriaren alde gauzak egiteko aukerak dituela frogatu dugu. Hon dela eta, eremu horretan gauzak egitera animatuko nituzke udalak. Gainera, teknologien munduan irakiten ari den espazio berri honetan Euskal Herria bezalako nazio batentzat oso aukera ona da. Tren hori gaitzen badugu, etorkizun beltza izango dugu eta, herri bezala, atzean geldituko gara.

**Eskaintza horiek guztiak non kaskatzen dituzte?**

Gure lanaren ardatza hiru zutabe nagusitan oinarritzen da. Institutio publiko baten baitan sortu ginen eta, ondorioz, gure helburua herritarrei zerbitzu egokia ematea da. Bestalde, proiektu eta zerbitzu hauekin berrikuntza teknologikoaren aldeko apustua egiten dugu, horrek herritarren bizitza kalitatean eragin positiboa duela uste baitugu. Az-



Carlos Costilla

## AMAIA MUNDIÑANO

Piskanaka-piskanaka, herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak ugartuz joan dira Urnietan. Administrazio berrak egindakoak. Udalak Urnietatearen bitartez aurrera daraman proiektuarekin atal berri bat irakitzeko eta telekomunikazioen munduan.

**Zein dira Urnietatelek herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuak?**

Egun Urnietatelek herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuak kable bidezko telebista, herri telebista, telefonía sarea eta Internet dira. Hau guzti pixkanaka lortzen joan den gauza da. Kable bidezko sareari dagokionez, urnietarrek 22 telebista kate ikusten dituzte dohainik euren etxeetan. Horrekin batera, herri telebista antolatuta gurentzat. Hau lorturik gurentzat, herria telefonía sarea ezartzea erabaki ginen. Herritarrei sare honek herri barruko deiak dohainik egiteko aukera eskaintzen die. Horrek dinen abantailak abaztu gabe, noski, deiak herriko kanpo egiteko Euskaltegien akordio batera iritsi ginen. Hurrengo pausoa Internet sarea herritarrei tarifa lauarekin eskaintzea izan zen. Hilabetean 1.000 pezetan ordainduz, nahi adina ibil daitezke Interneten.

## ZIRTOKA



Txillardegui

## Uhinaz

Joan den asteko artikuluan 1960 apatu nuen. Orain ere eta funtsean egoera antzekoa ote dugun idarok nuen. Neo-frankismoa Madrileko agintean. Eta Euskal iratzartzea horixe, indartsu, esperantzagarri, orduan bezalatsu.

Sindikato abertzaleak eta Lizarr-Garazi izan daitezke iratzartze horren seinale eta berme nagusiak.

Baina erne ibili behar dugu orduko errakuntzak ez egiteko.

Milosevic hor dago. «Gerra-kriminala» izendatua izan arren, hortxe, Belgradoko agintean. Kantzilergoek ez dute bota.

Txetxenieno genozidioa ere hor ari da gertatzen. Sarraiki betearen. Erusiarrek txalo josten dute. Erusiar Estatu Sakratua puskatu nahi dutenei, egura. Kitto.

Eta denak isilik.

Zer espero dezakegu euskaldunok «kanpotik» eta «goitik»? Ezer-txo ere ez. Hau guztiz behar dugu irentsi. Kanpokoek eta goikoek, agintzen dutenekin dute harremana. Ez agintzen ez dugunok.

Vaticanoen politika-eredua dago nagusi. «¿Cuántos tanques tienen ustedes?» galdetu zien Kardinal hart 36ko garaietan euskal ordezkari.

Orain bide bera darama (Setien lekuko). Baina gauza bera galdetzen dute Kantzilergo guztietan. «Real-Politik» nagusi.

Irtenebiderik bai, hortaz, Euskal Herriarentzat? Egokotan, ateka zeketen bat. Eta hori, abertzaleok elkar-turik jokatzen badugu.

Bestela ez dago. Aitor dezagun argi eta garbi.

Beraz, zentzua, otoi! Ez dezagun arriskutan jar (berriro ere!) jadanik dagoen abertzaleen arteko ekintza batasuna, ez hemendik eta ez handik, edo ez dakit nik zein «Pacto», edo zein ideologia edo estrategia orokor eta obtusoren zerbitzutan. Abertzaleok bat.

## AITZINDARIAK

ANGELA MEZA  
1 9 7 4



KONDOR eragimiza: Txile, Uruguai, Argentina, Paraguaiako diktadorek Preso Politikoaok trukatzen dizkiete elkarri.



Angelak 26 urte egin ditu. 2000. honetan



20 urteko Maria Rosa Aguirre eman diote Geroesnerri Uruguaiako Militarrak; Paraguaiaren heriotzaren torturatu dute.



Amaren gorpuaren bila ari duzu beti, bai eta egiatzko aitaren ere...

